



OBREN ERANTZUKIZUNEN AITORPENA

KASU GUZTIETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- "OBREN ERANTZUKIZUNEN AITORPENA"ren eredia behar bezala beteta eta sinatuta.
- Nortasunari dagokion dokumentazioa: NANaren fotokopia eta/edo ordezkari-tza frogatzen duena.
- Obren memoria deskriptiboa.
- Kontu-sailetan zehaztutako aurrekontua, barne direla materialak eta eskulana.
- Tributu-entz autolikidazioa, eredu normalizatuaren arabera, ordaindu izanaren frogagiria dakarrena.

GAINERA, URKEZTU BEHARREKO BERARIAZKO AGIRIAK, EGIN BEHARREKO LAN MOTAREN ARABERA:

1. Lokalak egokitzearekin lotutako obrak, txikizkako merkataritzako jardura betetzeko eta zerbitzuak emateko, aplikatzeko den araudi sektorialarekin bat. (12/2012. Eranskina) eta parekoak:

- Egungo egoeraren eta zaharberriaren planoak, adierazita azalerak, erabilerak eta instalazioak.
- Ziurtagiria, teknikari eskudun batek beteta eta sinatua, eta kasua bada, haren elkargo ofizialak ikus-onetsia, Udalak normalizatutako "LOKALEN OBRAK ziurtagiriaren" arabera, frogatzeko jardura dagoela ordenantza honen aplikazio eremuaren barnean, eta betetzen dituela hirigintzako araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.
- Fatxadaren egungo egoeraren argazkiak.
- Proiektututako obren zuzendaritzarako teknikari eskuduna kontratatzearen frogagiria. Ez da eskatuko garrantzi edo tamaina txikiko obretan eta frogagiri hori behar ez duten obra txikietan (ikus hurrengo ataleko B mota).

2. Garrantzi edo tamaina txikiko obrak, eta obra txikiak:

A MOTA. Obrak etxebizitzetan:

A.1	<p>Etxebizitza barneko obrak (trenkadetakoak ez): HONAKOAK besterik ez:</p> <ul style="list-style-type: none">• Estaldurak eraberritzea, konpontzea, berritzea edo aldatzea.• Barreneko zura aldatzea edo ordeztea.• Osasunerako tresneria aldatzea edo ordeztea.• Ezarpen berriak, eta instalazioak edo azpiegiturak konpontzea, berritzea edo aldatzea.
	<p>- Aurkeztutako dokumentazio orokorra.</p>

A.2	<p>Etxebizitza barneko obrak (igeltserotza eta trenkadetan aldaketa EZ nabarmenak).</p>
	<p>- Egungo egoeraren plano eta eraberritu ondokoa.</p> <p>- Obrak zuzentzeko teknikari eskuduna kontratatu izanaren frogagiria, baldin eta obrak 80 urtetik goragoko eraikinetako etxebizitzetan egin behar eta haietan trenkadak eraitsi behar badira, edo banaketa-aldaketak egin behar badira.</p> <p>OHARRA: Trenkadetan eta banaketan aldaketan funtsezkoak ote diren eta/edo etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak ukitzen dituzten ala ez erabakitzeko, <u>aurrez "Aurretzeko Kontsulta"</u> egin da.</p> <p>Aldaketak funtsezkoak badira, Obren Lizentzia gisa tramitatuko da.</p>

A.3	<p>Obrak etxebizitzetan barrenetan (azpiegitura edo instalazio berriak paratzea):</p>
	<p>- Egungo egoeraren plano eta eraberritu ondokoa.</p>

B MOTA. Obrak lokaletan:

OHARRA: lokalean jarduera sailkatu bat garatzen bada, kasu guztietan honakoa aurkeztuko da:
Txosten teknikoa, jarduketak araudiaren alderdiren bat ukitzen badu.

B.1	Fatxadak zaharberritzeko obrak: - Egungo egoeraren planoa eta eraberritu ondokoa. - Fatxadaren egungo egoeraren argazkiak.
B.2	Barneko estaldurak eraberritzea, konpontzea, berritzea edo aldatzea. - Egungo egoeraren planoa eta eraberritu ondokoa, beharrezkoa bada.
B.3	Ezarpen berriak, eta instalazioak edo azpiegiturak konpontzea, berritzea edo aldatzea: - Egungo egoeraren planoa eta eraberritu ondokoa.
B.4	Obrak lokalen barnealdeetan (eraikuntzaren eta kostuaren aldetik, funts gutxikoak) - Egungo egoeraren planoa eta eraberritu ondokoa. - Obrak zuzentzeko teknikari eskuduna kontratatu izanaren frogagiria, baldin eta obrak 80 urtetik goragoko eraikinetako lokaletan egin behar eta haietan trenkada jakin batzuk eraitsi behar badira, edo banaketa-aldaketak txikiak egin behar badira, betiere Eraikuntzako Kode Teknikoaren betetze baldintzak eta aplikatu beharreko beste edozein araudi tekniko ukitzen badituzte.

C MOTA. Obrak fatxadetan eta estalkietan:

C.1	Fatxadetako eta estalkietako obra puntualak, dauden materialak, koloreak eta diseinua mantentzen badira: HONAKOAK besterik ez: <ul style="list-style-type: none">• Estalkiaren konponketa puntualak.• Zorrotenak garbitzea eta ordezteak.• fatxadak margotu, paramentuak konpondu eta fatxadako elementuak (eskudelak, moldurak eta antzekoak) konpondu eta ordezteak.• Kanpoko zura ordezteak. - Fatxadetako eta estalkietako jarduketetan, obren xede diren elementuen argazkiak aurkeztu beharko dira. - Kanpoko zura ordezten bada: <ul style="list-style-type: none">• Jabeen Elkartearen erabakia, kanpoko zuraren modeloa onesten duena, Udalak normalizatutako V1 ereduari jarraituz, edo higiezin bererako aurretik aurkeztu izanaren jakinarazpena.• Jabeen Elkartearen baimena, kanpoko zura aldatzeko, Udalak normalizatutako V2 ereduari jarraituz.
C.2	Balkoia ixtea: - Jabeen Elkartearen erabakia, balkoiaren itxitura eredia eta/edo olanaren eredia onesten duena, B1 eredu normalizatuari jarraituz, edo aurretik aurkeztu izanaren jakinarazpena. - Jabeen Elkartearen baimena, balkoia itxi eta/edo eguzki-oihala ezartzeko, B2 eredu normalizatuari jarraituz.
C.3	Galdarak kanpoan jarri (etxebizitzetako balkoietan) eta/edo fatxadetan gas hodiak paratzea. - Jabeen Elkartearen erabakia, ke irteera modeloa onesten duena eta/edo galdarak kanpoan jartzekoa, H1 eredu normalizatuari jarraituz, txosten tekniko onetsiarekin batean, edo aurretik aurkeztu izanaren jakinarazpena. - Jabeen Elkartearen baimena galdara kanpoan jarri/aldatu eta/edo ke hodiak fatxadara ateratzeko, H2 eredu normalizatuari jarraituz.
C.4	Eraikin eta lokaletan eguzki-oihalak paratzea.



- Haien diseinua zehazteko dokumentazioa (planoak, argazkiak...).
- Fatxadaren argazkia eta/edo krokisa, zehazteko non kokatuko diren.

C.5 Fatxada-baoak zabaltzea beheko solairuan:

- Egungo egoeraren planoak eta eraberritu ondokoa.

C.6 Obrak fatxada eta estalkietan, oro har:

- Egungo egoeraren planoak eta eraberritu ondokoak, baldin diseinua, elementuen distribuzioa eta abar ukitzen badira.
- Justifikazio grafikoa eta/edo idatzia, agertzeko fatxadaren edo estalkiaren diseinuari eutsiko zaiola.
- Fatxadaren argazkia.

D MOTA. Eraikinen instalazio edo azpiegitura komunetako obrak:

D.1 Egungo instalazioen trazaduran edo instalazio berrien ezarpenean aldaketak dakartzaten obrak:

- Egungo egoeraren planoak eta eraberritu ondokoa.

D.2 Fatxada ukitzen duten obrak:

- Fatxada horien argazkiak eta proposatutako obraren krokisa.
- Azterlan teknikoa, frogatzeko betetzen direla aplikatzekoak zaizkion araudia eta udal ordenantzak.

D.3 Gas-instalazioak:

- Azterlan teknikoa, enpresa hornitzaileak zigilatua, instalazioa deskribatzeko, eta frogatzeko betetzen direla aplikatzekoak zaizkion araudia eta udal ordenantzak.

E MOTA. Proiektua idatzi aurreko laginak irekitzea edo eraiспен puntualak:

- Teknikari eskudunak proiekturako prestatutako txosten ikus-onetsia, laginak edo eraiспенak egiteko beharra justifikatzeko.

F MOTA. Etxebizitzen eraikinetako atariak berritzeko obrak (dekorazioa, estaldura), baldin araudiko baldintzak nabarmen aldatzen ez badituzte.

- Egungo egoeraren planoak eta eraberritu ondokoa.
- Egungo egoeraren argazkiak.
- Txosten teknikoa, jarduketak araudiaren alderdiren bat ukitzen badu.

G MOTA. Atal honetan adierazitako obren antzeko beste batzuk, "Garrantzi edo tamaina txikiko obrak, eta obra txikiak":

- Antzekoari dagokiona.

3. Itxiturak eta hesiak:

- Itxitura edo hesiaren modeloari buruzko dokumentazio teknikoa, adieraziz ezaugarriak, altuera, materialak, etab.

4. Eremu publikotik ikusten diren publizitate kartelak eta errotuluak.

- Kartela edo errotulua instalatuko den lurzatiaren planoa, berariaz adieraziz kartela edo errotulua non kokatuko den.
- Kartelaren edo errotuluaren ezaugarriak, adieraziz neurriak, materialak, espaloia edo lurraren sestratik zer altueratan dagoen, fatxadarekiko hegalkina (kasua bada), etab.
- Fatxadaren argazkia eta/edo krokisa, zehazteko non kokatuko diren.
- Zehaztu behar da ea kartel finkoa edo behin-behinekoa den, eta, bigarren kasuan, zenbat denboraz egonen den jarririk.

5. Eraiki aurreko lanak, adibidez, zundaketak, prospekzioak, laginak eta saiakuntzak:

- Teknikari eskudunak idatzitako txostena, non justifikatzen den zundaketak, prospekzioak, laginak eta/edo saiakuntzak egin beharra.

Gutxienez ere aipaturiko dokumentazio hori aurkeztu beharko da. Burlatako Udalak beste agiri batzuk ere eska ditzake, barne dela, kasua bada, teknikari eskudunak sinaturiko obra-proiektua (eta kasua bada, hark ikus-onetsirik), baldin eta beharrezkoa bada lizentzia behar duten obrak zuzen eta osoki zehazteko, edo araudira egokituko direla bermatzeko.

Aitorturiko obrak egiteko, jabari publikoa hartu behar bada, jabari publikoa hartzeko lizentzia eskatu beharko da.